

ESKOLAKO JOLASTOKIA IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1. blokea

Inguruaren ezagutza: 3. blokea

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: 1., 2. eta 3. blokeak

IRAKURKETA-FITXA: ESKOLAKO JOLASTOKIA

Beharko dugun materiala

Eskolako jolastokia ipuina ([esteka](#)).

Garapena

- Irakurri ipuina, ilustrazioez lagunduta.
- Egiatzatu neska-mutil guztiek ulertu dutela ipuinaren edukia.
- Oso modu xumea, hausnartu ipuinaren mezuaren inguruan, honelako galderak eginez:
 - Nor jartzen da triste motxilatik ateratzen dutenean? Zergatik jartzen da triste?
 - Zer esan dio sandwichak Fonori? Hurrek partekatzen al dute sandwicha jolas-orduan?
 - Ze hamaiketako da hurrek partekatu nahi izaten ez dutena? Zergatik?
 - Eskola horretako neska-mutilek partekatzen al dute gustatzen zaiena?
 - Nahi ez duguna edo gustatzen ez zaiguna partekatea eskuzabala izatea al da?
 - Zer dio paretan idatzi zuten mezuak? Zer da eskuzabala izatea?



ESKOLAKO JOLASTOKIA

Kaixo, lagunok.
Nik Fono dut izena
eta hona etorri naiz
eskuzabalak zareten ikustera.

Eskuzabalak al zarete?
Partekatzen al duzue daukazuena?
Jolastokira etorri naiz,
zer egiten duzuen ikustera.

«Egun on, Platano jauna.
Zer moduz zaude?
Banatzen al zaituzte umeek?
Nola tratatzen zaituzte?».

«Ni oso pozik egoten naiz
motxilaren barruan,
baina triste jartzen naiz
ateratzen nautenean jolas-orduan».

Ikusten nautenean, esaten dute:
"Kaka zaharra! Berriro fruta al dago?
Nahi baduzu, hartu zuretzat.
Nik behintzat ez dut jango!».

«Norbaitek etxean ahazten duenean
bere hamaiketakoa,
besteek ematen al diote
daukatenaren zatitxo bat?».

(Sandwichak erantzuten du)

«Bigun-biguna naizenez,
eta banatzen erraza,
batzuetan partekatu egiten naute
eta hori oso ederra da».

«Tartean daukadana gustatzen
bazaie,
ziztu bizian jaten naute,
baina, gustatzen ez bazaie,
partekatu egiten naute».

(Palmera mintzo da)

«Nire esperientzia, ordea,
oso polita da:
atarian ikusten nautenean,
denak hurbiltzen dira nigana».

«Ekartzen nautenak poz-pozik
aritzen dira nire txokolatea jaten,
eta besteek zatitxo bat eskatu
arren,
ez naute sekula partekatzen».

(Fono mintzo da)

«Ume hauek ez dakite
eskuzabala izatea zer den.
Nahi ez dutena partekatzen dute,
eta gustatzen ez zaiena batere».

«Zuen laguntza behar dut,
paretan gauza bat jartzeko».
Eta margoen bila joan ziren,
mezu bat prestatzeko.

Hauxe idatzi zuten
eskolako jolastokian,
hizki handi-handiekin,
ondo ikusteko baita ere urrutian:

**Eskuzabala izatea ez da
gustatzen ez zaiguna
edo nahi ez duguna ematea,
baizik eta besteengan
pentsatzea
eta daukaguna partekatzea.**

PARTEKA DEZAGUN

Beharko dugun materiala

Folioak eta margoak.

Aurretiazko oharra

Jarduera honen bidez, sendotu egingo ditugu ipuinaren mezua eta aurreko jardueran landutako edukia.

Garapena

- Hartu ipuinaren bukaerako mezua, irakurri ozen, eta, ahal izanez gero, neska-mutilek ulertu eta buruz ikas dezatela:

**Eskuzabala izatea ez da
gustatzen ez zaiguna
edo nahi ez duguna ematea,
baizik eta besteengan pentsatzea
eta daukaguna partekatzea.**

- Elkarrekin, hausnartu bakoitzak partekatu duenaz:
 - Pentsa dezatela zer partekatu duten.
 - Haur bakoitzak bere esperientzia konta dezala: zer partekatu zuen eta norekin partekatu zuen.
- Eskatu neska-mutilei hori marrazki baten bidez adierazteko.
- Bukatzeko, presta ezazue mural bat, esaldi hau daramana: «**Eskuzabala izatea besteengan pentsatzea eta daukaguna partekatzea da**». Esaldiaren azpian, neska-mutilek egindako marrazkiak zintzilikatu, lagungarriak izango baitira ipuinaren mezuak indartzeko.